



OIARTZUN

abuztuaren 2tik 6ra



Joana Mendiburu Garaia
Oartzungo alkatea

Urteko egun luze argitsuekin batera jai-giroan murgiltzen gara Euskal Herrian, baita Oiartzunen ere. Auzoetako jaiekin hasi, San Juan suarekin jarraitu eta ospakizunek ez dute etenik izaten. Egun berezi horiek lagunekin eta ingurukoekin gozatzeko uneak izan ohi dira, edo aspaldian ikusi gabeko pertsonekin elkartzeko aitzakia. Edonola ere, konpainia onean kulturaz gozatzeko aukera paregabea.

Xanistebanak hurbildu ahala, abuztuaren 1eko kultur ekitaldia izaten da agendan gordeta izaten dugun data bat. Urtez urte, herriko kulturgintzari ekarpen esanguratsuak egin izan dizkien eragile edo herritarrek omentzen dira bertan. Aurten, poz handiz omenduko dugu hainbat urtez, hutsik egin gabe, herriko erraldoiak dantzatzeko ardura eta konpromisoa izan duen herritar taldea.

Erraldoia ezkutuko dantzari batek mugitzen duen bezala, isilpeko lanean ibiltzen da jai-batzordea ere. Oiartzungo eragile eta elkarte desberdinetako lagunak, adin eta interes desberdinekoak,

guztiak elkarrekin jai herriko, parekide eta euskaldunak antolatzeko lanean. Izan ere, Xanistebanetako egitarau oparoa osatzen duen ekitaldi-sorta ez da berez antolatzen. Ez horixe! Herriko kaleak kolorez bete eta gustu guztietarako ekintzak antolatzen lanean ibili direnek guztion esker ona merezi dute. Horregatik, aurten, zapi urdina soinean jarri eta udaleko ordezkariak soka-dantzara aterako ditugu, guztiok batera Xanistebanei hasiera ezin hobea emateko.

Zoritxarrez, aurten ere izango da zapi urdina janzteko aukerarik izango ez duen herritarrik. Pozik jarriko genieke lepotik etxetik urrun edo festetan parte hartzeko aukerarik gabe dauden herritar guztiei. Bihoakie hemendik besarkada estu bana!

Amaitzeko, guztiei dei egiten dizuet urtean zehar izaten ditugun ohiko lan-eritmo eta buruhaustek alde batera uzteko eta espero dut jaietako ekintzetako batean elkar topo egingo dugula.

GORA XANISTEBANAK!



Oiartzungo Udalak, herriko elkarten laguntzaz eta herritar guztien gozamenerako, abuztuaren 2, 3, 4, 5 eta 6rako eratu duen
JAI ETA KULTUR EKINTZEN EGITARUA

ABUZTUAK 2 ostirala

- Arratsaldean zehar** Auzoz auzoko 43. ibilaldia: OIARTZUNGO MUSIKARIZ osatutako taldea ibiliko da auzoz auzo, Xanistebanak hastera doazela iragarritz.
Antolatzailea: Oidultz Dultzaina Taldea
- 18:30** AGERRALDI FEMINISTA, herriko plazan
Antolatzailea: Oiartzungo Feministen Asanblada
- 19:30** Udaltzako kideek SOKADANTZA dantzatuko dute, Herriko Plazan, Haurtzaro Dantza Taldearen, Olarri Dantza Taldearen eta Lartaun Txistulari Taldearen laguntzaz.
- Ondoren** Jai Batzordeak proposatuta, 50. urteurrena duen
ARTASO ELKARTEAK SUZIRIA botako du.
- Kanpai-soinu alaitsuekin batera, jaiak hasiko dira.**
Antolatzaileak: Kanpai joleak
- Jarraian** OIARTZUNGO ERRALDOIEN kalejira, herrian zehar, dultzaineroen eta Lartaun Txistulari Taldearen laguntzaz.
Antolatzaileak: Soinuenea eta Lartaun Txistulari taldea
- 20:15** Itaiaren partetik eta herriko jendearen parte hartzearekin INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO MURALA Txosnagunean.
Antolatzailea: Itaia
- 20:30** XAUKENA TXARANGAK Plaza inguruko bazterrak eta txosnaguneak animatuko ditu. Antolatzailea: Musika Batzordea
- 20:30** ZIMITIYOKO TXOSNAREN irekiera. Antolatzailea: Zimitiyoko txosna
- 23:00** Musika Jaialdia, Txosnagunean. Antolatzailea: Musika Batzordea
HERENEGUN
ZILIBITO RECORDS
HOFE X 4:40
- 24:00** Musika Jaialdia, Done Eztebe plazan:
ITZAL ERROMERI TALDEA
Antolatzaileak: Musika Batzordea
- 24:00** DJ JOTATXO, Zimitiyoko Txosnan.
Antolatzailea: Zimitiyoko txosna



ABUZTUAK 3 larunbata

XANISTEBAN EGUNA

- 07:00** SOKAMUTURRA, Beheko Plazan.
Antolatzailea: Auzokalte Elkartea
- 07:00** GOSARI TXOW, Done Eztebe plazan.
Antolatzailea: AIA
- 09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea.
- 11:00** LARTAUN ABESBATZA kantuan eta BEGOÑA BERGARETXE harmoniumean Meza Nagusian Done Eztebe Parrokian.
- Ondoren** 47. KONTZERTU HERRIKOIA, Kontzejupean, Euskal doinu, kanta eta dantzetan oinarritutako emanaldia.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea
- 11:30** UR PUZGARRIAK, Landetxe plazan.
Antolatzailea: AIA
- 16:00** Madalensoro pilotalekuan, Oiartzungo Auzoen Arteko 36. SOKATIRA TXAPELKETA.
Antolatzailea: Artaso Elkartea
- 17:00** IPUIN KONTAKETA 3 urtetik gorako haurrentzat Ane Gebar-ren ahotsetik. Ondoren, askari osasungarria Arizmendienean (🌧️ Udaletxeko aretoan).
Antolatzailea: Elizaldeko Guraso Elkartea.
- 19:30** DANTZA BILERA txistulariekin, Kastroko iturrian.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea
- 20:00** Ekida Arte ekimen sozialistak antolatutako BERTSO SAIO MUSIKATUA txosnagunean. Antolatzailea: Ekida Arte ekimen sozialista
- 23:30** Musika Jaialdia, Done Eztebe plazan:
ESANEZIN
EIRE
Antolatzaileak: Musika Batzordea
- 23:30** Musika Jaialdia, Txosnagunean. Antolatzaileak: Musika Batzordea
YAKOVLEV 42
LA TXAMA
- 24:00** DJ ELEPUNTO, Zimitiyoko Txosnan.
Antolatzailea: Zimitiyoko txosna



ABUZTUAK 4 igandea

BASERRITAR EGUNA

- 05:30** Txoznaguneko gaupaseroen Oiartzungo lehen TOKA TXAPELKETA, GKS eta Itaiaren partetik.
Antolatzaileak: GKS eta Itaia
- 09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea
- 10:00** HemenGuk, Oiartzungo PRODUKTUEN AZOKA, Yon Oñatibia kalean. Bertako eta sasoiko produktuena azoka.
Antolatzaileak: Hemenguk
- 10:00** 76. XANISTEBAN TXIRRINDULARI SARIA, Txomin Perurenaren omenez.
Antolatzailea: OTXE Oarsoaldeko Txirrindulari Kirol Kluba
- 10:30** IDI DEMAREN lehenengo txanda, hilerriaren goiko aldeko plazan. Oiartzungo harria erabiliko da (1.800 kg-koa).
1.100 kg-tik gorako pisua duen idi pare bakoitzak 1,5 kg-ko gain-zama hartu beharko du gainditzen duen kilo bakoitzeko. Federatuak izango dira.
Antolatzailea: Oiartzungo Idiyazaleak Elkarte
- 11:00** ZAHARREN EGOITZARAKO BISITALDIA, Haurtzaro Ikastolako Dantza Taldearekin, Lartaun Txistulari Taldearekin eta trikitilariekin.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola
- 11:00** Oiartzungo Herri Musika Eskolako kale-bueltak Done Eztebe plazatik abiatuta.
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa
- 11:30** LIBREKO BERTSO SAIOA Miren Amuriza Plaza eta Julio Soto Ezkurdia bertsolariekin Donibane Kalean.
Antolatzailea: Martzelina Bertsozale Elkarte
- 11:50** Inaxio Uharte 23. SAGARDO LEHIAKETAren hasiera, Done Eztebe plazan.
Herriko sagardoa dasta eta balora ezazu edalontzia erosiz!
Antolatzailea: Ibagain Elkarte
- 12:00** Oiartzungo PINTXO-LEHIAKETA, Done Eztebe plazan. Herriko elkarte eta tabernek egindakoena artean, pintxo onena nork egin duen jakingo dugu.
Antolatzailea: Ibagain Elkarte



- 12:00** Oidultz DULTZAINA TALDEAren kale-bueltak Zaharren Egoitzatik abiatuta.
Antolatzailea: Oidultz Dultzaina Taldea
- 13:15** Oiartzungo PINTXO LEHIAKETA; sarien banaketa, Done Eztebe plazan.
- 13:30** Inaxio Uhartte 23. SAGARDO LEHIAKETAren sari banaketa, Done Eztebe plazan.
- 14:00** Oiartzungo Udalak BAZKARI GOXO BAT ESKAINIKO DIE HERRIKO ERRETIRATUEI, Gazte Izanak elkartearen laguntzarekin.
Ondoren, musika izango da, nahi duenak dantza egin dezan.
- 14:30** BAZKARI FEMINISTA, Eliza ondoan.
Antolatzailea: Oiartzungo Feministen Asanblada
- 15:30** Oiartzungo HAURREN JOKO GARBI eta PALA TXAPELKETA HERRIKOIAren finalak, Kontzejupean.
Antolatzailea: Oiartzungo Eskola Kirola
- 16:00** EUSKAL PILOTA EGOKITUko erakustaldia, Kontzejupean.
Antolatzailea: Mindara Elkartea
- Ondoren** Binakako PALA TXAPELKETAren finalak, Kontzejupean, neskak eta mutilak.
Antolatzaileak: Girizia Pilota Saila eta Txost.
- 17:00** HELDUEN TAILERREN 25. ERAKUSKETA (margoak, bolilloak, eskulanak, taila, joste-lanak, pachwork, altzari-berritzea, eta abar), Done Eztebe Plazan.
Antolatzailea: HELTA Helduen Tailerrak
- 17:00** IDI DEMAren bigarren txanda, hilerriaren goiko aldeko plazan.
- 17:00** BINGO DRAG MUSIKATUA Eliza ondoan.
Antolatzailea: Oiartzungo Feministen Asanblada
- 18:00** ANDEREÑO TXONTXONGILO IKUSKIZUNA Anita Maravillas konpainiaren eskutik 6 urtetik gorako haurrei zuzendua Landetxe Kultur Aretoan.
Antolatzailea: Elizaldeko Guraso Elkartea
- 18:45** OLARRI Oiartzungo Dantza Taldearen saiotxo, Kastro iturri ondoan.
Antolatzailea: Olarri Dantza Taldea
- 19:15** HERRI KIROLLEN JAIALDIA, hilerriko plazan.
Aizkolariak eta Harri-jasotzaileak.
Antolatzailea: Iturri-Berri Elkartea



- 19:30** DRAG DJ IKUSKIZUNA: Albina Stardust eta Divina Comedia Txosnagunean.
Antolatzailea: Oiarzungo Feministen Asanblada
- 21:00** GOI-MAILAKO PILOTA PARTIDAK
Neskak: Arraiza-Mendizabal / Larrarte-Erasun
Mutilak: Oiarzun / Goizueta:
Etxeberria-Landa / Apezetxea-Apezetxea
Antolatzaileak: Oiarpe K. E.
- 22:00** KORRONTZI taldearen ETA OINKARI dantza taldearen IKUSKIZUNA, Elorsoro kiroldegian.
Antolatzailea: Haurtzaro Dantza Taldea
- 23:00** Musika Jaialdia, Done Eztebe plazan:
BIDEBATEZ
Antolatzaileak: Musika Batzordea
- 23:00** HELDUEN DANBORRADA, Oiarzungo kaleetan zehar.
Antolatzaileak: Auzokalte Elkarte eta Haurtzaro Ikastola
- 23:00** Musika Jaialdia, Txosnagunean.
STR
ASTELEHEN GOIZAK
Antolatzaileak: Musika Batzordea
- 24:00** DJ BULL, Zimitiyoko txosnan, euskal musikaz girotua.
Antolatzailea: Zimitiyoko txosna.

ABUZTUAK 5 astelehena

GAZTEEN EGUNA

- 09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea.
- 11:00** Oiarzungo ERRALDOI handien eta txikien kale-buelta Done Eztebe Plazatik abiatuta.
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa
- 11:00:** TOKA JOKOA Landetxeko atarian 18 urtetik gorako oiarzuarrentzat. Izen ematea egun berean, Gazte Izanak-en lokalean 11:00etatik 12:00ak arte.
Antolatzailea: Gazte Izanak Elkarte



- 11:45** BERTSO JAIALDIA, txosnagunean. Alaia Martin, Nerea Ibartzabal, Andoni Egaña eta Amets Arzallus bertsolariekin; gai-jartzailea: Ander Lizarralde. (☁️ Udaletxeko aretoan). Antolatzailea: Martzelina Bertsozale Elkartea
- 12:30** KANTU KANTARI. Kantuzale den orok herri-kantuen sorta ederra abesteko aukera izango du herriko kaleetan barrena. Denak gonbidatuta! Antolatzailea: Lartaun Abesbatza.
- 13:00** GAZTE TXUPINAZOA, Txosnagunean. Antolatzaileak: Biyurrienea
- 13:30** GAZTEEN BAZKARIA, Done Eztebe plazan. Antolatzaileak: Biyurrienea
- 16:00** Haur mailako banakako 24. XAKE LEHIAKETA, Madalensoron. Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola.
- 17:00** TXOKO JOLASAK, Arizmendienean hasita. Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola
- 18:00** 32. ARIN-ARIN ETA FANDANGO TXAPELKETA, gaztetxoentzat Landetxe Kultur Aretoan. Gipuzkoa osoko dantzariak, 15 urtetik beherako neska-mutilak, Lartaun Txistulari Taldearen doinuekin dantzan. Antolatzailea: Aldeguna Elkartea.
- 18:00** Elektrotxarangak gidatutako POTEOA tabernaz taberna. Antolatzaileak: Biyurrienea
- 19:30** DANTZA BILERA, Kastroko iturrian. Musikariak: Oiartzungo HM eskolako irakasleak. (☁️ Kontsejupean). Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa
- 22:00** Gazte eguneko jolasak Txosnagunean. Antolatzaileak: Biyurrienea
- 22:30** Dantzaldia, Done Eztebe Plazan. PATXI PEREZ Antolatzaileak: Musika Batzordea
- 23:30** DJ FRESA MORANGO, Txosnagunean. Antolatzaileak: Musika Batzordea



ABUZTUAK 6 asteartea

HAURREN EGUNA

- 09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea
- 10:30** Xanistebanetako HAURREN ESKU-PILOTA TXAPELKETA HERRIKOIAren finalak, binaka, Kontzejupean.
Antolatzailea: Oiarpe KE
- 11:00** Oiartzungo Herri Musika Eskolako KALE-BUELTAK, Done Eztebe plazan hasita.
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa
- 11:00** ELIZALDEKO DANTZA TALDEAREN EMANALDIA, txosnagunean.
(☁️ Udaletxeko aretoan).
Antolatzailea: Elizaldeko Guraso Elkarte
- 11:30** Herriko gazteen BERTSO SAIOA, txosnagunean.
(☁️ Udaletxeko aretoan).
Antolatzailea: Martzelina Bertsozale Elkarte
- 12:30** ARKUME ERRETZEA: ARKUMEA BURDUNTZIAN, A ZE POZA TRIPAN SARTZIAN.
Done Eztebe plazan, herri-poteoaren hasiera.
- 14:30** ARKUME JATEA. Bazkalondoa, TXARANGAk alaituta.
Antolatzailea: Ardi Latxa elkarte
- 16:00-20:00** HAUR ETA GAZTEENTZAKO PARKEA Landetxe Plazan.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola
- 16:00** Xanistebanetako 27. TRUK TXAPELKETA, Madalensoro pilotalekuan. Antolatzailea: Oiarpe KE
- 18:00** AITOR TXIKI I. ARETO FUTBOLEKO GAZTETXOEN TXAPELKETAren finalak, Elorsoro kiroldegian.
Antolatzailea: Aitor Txiki Futbito Elkarte
- 18:30** Haurrentzako TXOKOLATADA, Landetxe plazan.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola

BARRAKAK

Barraketan **prezio bereziak** izango dira Oiartzunen Xanistebanetan:

Bidaia bat: 2 euro · 6 bidaia: 9 euro

Egunero 17:00etatik 18:00etara bitartean, ez da izango musikarik ez soinu karrankaririk, barrakak ahalik eta inklusiboan izan daitezen.



- 19:00** AITOR TXIKI XV. ARETO FUTBOLEKO TXAPELKETAren finalak, Elorsoro kiroldegan. Antolatzailea: Aitor Txiki Futbito Elkarte
- 19:00** AFRIKA BIG BANG KONTZERTUA txosnagunean. Antolatzailea: Oartzungo Feministen Asanblada
- 23:00** Musika Jaialdia, Txosnagunean.
SUSTRAI SISTERS
Antolatzaileak: Musika Batzordea
- 23:00** Elizaldeko kaleetan zehar, ZEZENSUZKOA ibiliko da, Lartaun Txistulari Taldeak *Idiarena* doinuz lagundurik.
- 23:30** Musika Jaialdia, Done Eztebe plazan.
PURO RELAJO
Antolatzaileak: Musika Batzordea

INDARKERIA MATXISTARIK
GABEKO XANISTEBANAK

ARRETA eta INFORMAZIO ZERBITZUA ERASO MATXISTEN AURREAN

Abuztuak 2, 5 eta 6

08:00-14:30 / 18:00-21:00 / 23:00-06:00

Abuztuak 3 eta 4 (asteburua)

12:00-14:30 / 18:00-21:00 / 23:00-06:00



LEKUA

Done Eztebe plazan,
Fermiñene eraikinean



OIARTZUNGO
UDALA



XORROLA XANISTEBANETAN



Abuztuaren 3tik 7ra, Xorrola herri barruko gaeko autobus zerbitzua egongo da. Anbulatorioko eta Yon Oñatibia kaleko geltokiak Bibliotekako parera pasatuko dira.

Gaeko zerbitzu berezia: lehen zerbitzua 00:00 / azkena 06:00

Ibilbidea: Biblioteka, Gurutze, Ergoien, Altzibar, Karrika, Iturriotz, Ibarre, Pikabene, Intxixu, Arragua, Mendin, Biblioteka.

KIROL EKITALDIAK

UZTAILAK 31, ASTEAZKENA

10:30 Xanistebanetako HAURREN ESKU-PILOTA TXAPELKETA HERRIKOIAren finalak, banaka, Kontzejupean.
Antolatzailea: Oiarpe KE

ABUZTUAK 1, OSTEGUNA

18:30 13. ESKUZKO PASAKA Txapelketa Herrikoiaaren finala.
Antolatzailea: Txost pilota elkarte

KULTUR EKITALDIAK

UZTAILAK 31, ASTEAZKENA

17:00 "ZORIONEKO" antzezlanaz Gazte Sortzaileen eskutik Landetxe Kultur Aretoan.

19:30 HIESaren aurkako Harri Beltza elkartearen eskutik, LANDARBASOKO DIZDIZKA ABESBATZAren kontzertua, Done Eztebe elizan.

22:00 "ZORIONEKO" antzezlanaz Gazte Sortzaileen eskutik Landetxe Kultur Aretoan (bigarren emanaldia).

ABUZTUAK 1, OSTEGUNA

18:00 Arizmendieneko lorategian (🌧️ Landetxe Kultur Aretoan), Xanistebanetan ohitura den bezala, **Oiartzun 2024** urtekariaren aurkezpenari ekingo dio Udaleko Kultura Batzordeak.

Jarraian Xanistebanak 2024 kartel lehiaketako irabazleen sariak banatuko dira.

Bukatzeko herrian nabarmendu direnei omenaldia egingo die Udalak.

ERAKUSKETAK

XANISTEBANEK IRAUTEN DUTEN BITARTEAN

MANUEL LEKUONA BIBLIOTEKAN 09:00 - 14:00

abuztuaren 2an, 5ean eta 6an,

Xanistebanak 2024 Kartel Lehiaketan parte hartu duten kartelen erakusketa

ARIZMENDIENEAN 09:30-14:30 eta 15:30-18:30

abuztuak 9a arte

Helduen Tailerreko margolanekin erakusketa.

Antolatzaileak: HELTA Helduen Tailerrak.

OHARRAK

Oiartzungo Udalak ez ditu bere gain hartuko jai hauetan gerta daitezkeen zorigaitzak. Halaber, egitarau honetan adierazten diren festa edo ekintzetan iruditzen zaizkion aldaketak egiteko ahalmena du.

Xanisteban festetako aurrekontua ikusgai egongo da helbide honetan, oiartzun.eus/eu/Festak/Xanistebanak, **Xanistebanetako aurrekontua** estekan.



XANISTEBANAK JAI BATZORDEA



OIARTZUNGO
UDALA

Azala: Xanistebanak 2024 iragartzen dituen kartela. Egilea: Igor San Jose Izagirre